Bestelako Xedapenak

**OGASUN ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

1485

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretuarena: «20/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. sozietate publikoaren estatutuak aldatzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikuluak ezartzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Otsailaren 3ko 20/2009 Dekretuaren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. sozietate publikoaren estatutuak aldatu ziren (EHAAren 34. zk., 2009ko otsailaren 18koa). Bada, dekretu horretan aipatu bezalako hutsak atzeman dira, eta zuzendu egiten dira jarraian:

Eranskinean, 2009/869 (6) orrialdean, hau dio:

«Sozietatearen kapitala hamazortzi milioi laurehun eta berrogeita bat mila seiehun eta laurogeita hamaika euro eta zentimo batekoa (18.441.691,01) izango da, eta hiru milioi eta hirurogeita zortzi mila bostehun eta bat (3.068.501) izendun akziok ordezkatzen dute, bakoitzak sei euro eta zentimo bateko (6,01) balio izendatua dutenak, serie eta mota bakarrekoak. Akzio horietako bakoitzak bere zenbakia izango du, eta dagokion hurrenkeran izan ere, bi milioi bostehun eta laurogeita bost mila bederatziehun eta hirurogeita hamahirutik (2.585.973), hiru milioi eta hirurogeita zortzi mila bostehun eta batera (3.068.501) bitartean, biak barne, guztiz harpidetu eta ordainduak».

Honako hau esan behar du:

«Sozietatearen kapitala hamabost milioi bostehun eta hogeita hamazortzi mila zazpiehun eta hirurogeita lau euro eta laurogeita bost zentimokoa (15.538.764,85) izango da, eta bi milioi eta bostehun eta laurogeita bost mila laurehun eta laurogeita bost (2.585.485) izendun akziok ordezkatzen dute, bakoitzak sei euro eta zentimo bateko (6,01) balio izendatua dutenak, serie eta mota bakarrekoak. Akzio horietako bakoitzak bere zenbakia izango du, eta dagokion hurrenkeran izan ere, 1etik bi milioi bostehun eta laurogeita bost mila laurehun eta laurogeita bostera (2.585.485), biak barne, guztiz harpidetu eta ordainduak.»

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

1485

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 20/2009, de 3 de febrero, de modificación de los estatutos sociales de la Sociedad Pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A.

El artículo 18.2.a) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores de composición que se produzcan en la publicación, siempre que alteren o modifiquen su contenido o puedan suscitar dudas al respecto, se rectificarán de oficio por la Dirección de la Secretaria del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, o a instancia del órgano o entidad interesado.

Advertidos errores de dicha índole en el Decreto 20/2009, de 3 de febrero, de modificación de los estatutos sociales de la Sociedad Pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A., publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 34, de 18 de febrero de 2009, se procede a su corrección.

En el anexo, página 2009/869 (6), donde dice:

«El capital social se fija en dieciocho millones cuatrocientos cuarenta y un mil seiscientos noventa y un euros con un céntimo (18.441.691,01) y está representado por tres millones sesenta y ocho mil quinientas una (3.068.501) acciones nominativas de seis euros con un céntimo (6,01) de valor nominal cada una, de única serie y clase, numeradas correlativamente del dos millones quinientos ochenta y cinco mil novecientos setenta y tres (2.585.973) al tres millones sesenta y ocho mil quinientos uno (3.068.501), ambos inclusive, íntegramente suscritas y desembolsadas.»

Debe decir:

«El capital social se fija en quince millones quinientos treinta y ocho mil setecientos sesenta y cuatro euros con ochenta y cinco céntimos (15.538.764,85) y está representado por dos millones quinientas ochenta y cinco mil cuatrocientas ochenta y cinco (2.585.485) acciones nominativas de seis euros con un céntimo (6,01) de valor nominal cada una, de única serie y clase, numeradas correlativamente del uno (1) al dos millones quinientos ochenta y cinco mil cuatrocientas ochenta y cinco (2.585.485), ambos inclusive, íntegramente suscritas y desembolsadas.»